



EUSKAL KIROL FEDERATUAREN NAZIOARTEKO ORDEZKARITZA

EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN ESKUTIK: BIDERAGARRITASUN

JURIDIKOA


Lantaldea

Juan José Álvarez Rubio. Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko Katedraduna. Abokatua.
GLOBERNANCE, Gobernantza Demokratikoko Institutuko Idazkari Nagusia.
Juan Antonio Landaberea Unzueta. Kirol Zuzenbideko espezialitateko abokatua.
Gonzalo Palacio de Ugarte. CUATRECASASeko abokatua.

Donostia-San Sebastiánen, 2014ko urtarrilaren 27an



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GLOBERNANCE

GOBERNANTZA DEMOKRATIKOAREN INSTITUTUA
INSTITUTO DE GOBERNANZA DEMOCRÁTICA

Laburpena

1. Aurrekariak eta kontsulta	2
2. Aplikatu daitezkeen legeria	2
3. Ebazpena	3
A. Nazioarteko kirol-federazioen izaera eta osaera	3
B. Euskal kirol-federazioen nazioarteko ordezkartza, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera	19
4. Ondorioak	31

EUSKAL KIROL FEDERATUAREN NAZIOARTEKO ORDEZKARITZA EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN ESKUTIK: BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA

Donostia-San Sebastián, 2014ko urtarrilaren 27an

1. Aurrekariak eta kontsulta

- 1.1 Gobernantza Demokratikoaren Institutua (aurrerantzean, Globernance), hausnartzeko, ikertzeko eta ezagutza hedatzeko zentro bat da. Bere helburua da ikerketa egitea eta prestakuntza ematea gobernantza demokratikoaren gain, gure garaiko pentsamolde politikoa berritze aldera.
- 1.2 GLOBERNANCEk ikerketaren arloan duen eginkizunaren baitan, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren enkargua jaso du, aldizka mahairatzen den gai baten azterketan sakontze aldera, alegia, euskal kirol-federazioek euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkari-tza gauzatzearen bideragarritasun juridikoa.
- 1.3 Goian esandakoarekin bat etorriz, honako txosten hau prestatu du Juan José Álvarez Rubiok —Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradun, abokatu eta Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutuaren Idazkari Nagusiak—, Juan Antonio Landaberea Unzuetak —Kirol Zuzenbidean espezializatutako abokatuak— eta Gonzalo Palacio de Ugartek —CUATRECASASeko abokatuak— osatutako lantaldeak, arestian aipatutako euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkari-tza horren bideragarritasuna zehazte aldera, indarrean dagoen ordenamendu juridikoari jarraiki.

2. Aplikatu daitezkeen legeria

- 2.1 Mahairatzen den kontsultari aplikatu daitezkeen legeria honako hau da:
 - 1978ko Espainiako Konstituzioa.
 - 31/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
 - 10/1990 Legea, urriaren 15koa, Kirolarena.
 - 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
 - 1835/1991 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Espainiako kirol-federazioei eta kirol-elkarteen erregistroari buruzkoa.

- 2075/1982 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, nazioarteko jardueri eta ordezkariari buruzkoa.
- 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena.

3. Ebazpena

- 3.1 Kirol-federazioek euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkari gisa jarduteak eztabaida piztu izan du aspalditik eta aldizka, aukera horren aldekoen eta aurkakoen artean.
- 3.2 Eztabaida hori ez da esparru ideologiko eta politikora mugatu: esparru juridikora ere zabaldu da, txosten honetan ikusi ahal izango dugun bezala.
- 3.3 Hartara, ikuspuntu juridiko zorrotzetik, kirol-federazioek euskal kirol federatuaren ordezkari gisa jardutearen bideragarritasuna osotasunean aztertzeak zera eskatzen du: batetik, ordezkariari hori gauzatzea posible den zehaztea, indarrean dagoen Estatuko eta erkidegoko ordenamenduari jarraiki, eta, bestetik, nazioarteko kirol-federazioek, nazioarteko txapelketak antolatzen eta arautzen dituztenek —txapelketa ofizialak, behintzat—, ordezkariari hori onartuko luketen ala ez.
- 3.4 Horiek horrela, azalpenaren argitasunaren mesedetan, txosten honetan, nazioarteko kirol federazioek euskal kirol-federazioen eskutik euskal kirol federatua nazioartean ordezkari gisa izatea onartuko luketen aztertuko da aurrena, eta, ondoren, ordezkariari hori indarrean dagoen barne-ordenamendu juridikoarekin bat datorren ala ez.

A) Nazioarteko kirol-federazioen izaera eta osaera

- 3.5 Ikuspuntu juridikotik, nazioarteko kirol-federazioak izaera pribatuko entitateak dira, eta ez dituzte Estatuak osatzen, elkarte pribatuek baizik, kirol-federazio nazionalak, alegia. Egoitza soziala duten lurraldeko elkarte pribatuei eta ordena publikoari buruzko Zuzenbideak arautzen ditu.
- 3.6 Hartara, nazioarteko kirol-federazioak gobernu kanpoko nazioarteko erakundeak dira, eta dagokien oinarri juridikoa Barne Zuzenbideko egintza juridikoarena da, ez Nazioarteko Zuzenbide Publikoko egintzena.

- 3.7 Horren ondorioz, nazioarteko kirol-txapelketak ez dira Estatuaren artekoak, kasuan kasuko kirol-federazioa baino ordezkatzen ez duten kirolarien artekoa baizik.
- 3.8 Nazioarteko kirol-federazioak, gobernuz kanpoko gainerako erakundeak bezala, hainbat federazio nazionalen ekimenez sortzen dira, eta euren estatutuak eta araudiak onartzen dituzte, kide berriak onartzeari buruzko arauak xedatu ohi dituztenak.
- 3.9 Halaber, komenigarria da azpimarratzea nazioarteko kirol-federazio horietan parte hartzea borondatezkoa edo askea dela, hau da, ez dagoela federazio nazional bat nazioarteko federazio jakin batera atxikitzen behartzen duen araurik. Baina, era berean, ez dago bertan parte hartzeko eskubide absoluturik. Hori dela-eta, nazioarteko federazio bat sortuta dagoenean, nazioarteko federazio horrek, bere arauen edo estatutuen arabera, "kidegai" den kirol-federazioa onartzearen mende dago bertako kide bilakatzeko, kasu guztietan.
- 3.10 Horrenbestez, nazioarteko kirol-federazioen esparru pribatua erabakigarria da kirol-federazio berriak onartzeko garaian, eta, elkarrearen edo erakundearen autonomia edo askatasun horren ondorioz, nazioarteko kirol-federazioak Estatu propiorik gabeko kirol-federazioak onar ditzakete, euren estatutuen era araudien edukiei jarraiki.
- 3.11 Bai kirol-esparru nazionalen, bai nazioarteko esparruan, presentzia instituzional publikoa gero eta handiagoa denez, kirol-federazio ugarietan parte hartzeko, derrigorrezko betekizuna da kide diren kirol-federazioen jurisdikzioa Nazioarteko Erkidegoak halakotzat aintzatetsitako Estatu edo herrialde subirano batenarekin bat etortzea. Aldiz, arestian esandakoaren erakusgarri, badago Estaturik gabeko lurraldeetako kirol-federazioek parte hartzeko aukera ahalbidetzen eta onartzen duten estatutuak eta araudiak dituzten nazioarteko kirol-federazio asko ere, jarraian ikusiko dugun bezala.

3.12 Hona hemen gaur egun eta dagozkien estatutuei eta araudiei jarraiki, Estaturik gabeko kirol-federazioak kide gisa onartuko lituzketen nazioarteko kirol-federazioen adibiderik argienak¹:

1. Nazioarteko Igeriketa Federazioa (FINA):

- Eratu zen urtea: 1908.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: herrialde edo "kirol-herrialde" gisa aintzatetsia izatea.

Horren haritik, FINAren estatutuek honela definitzen dute "kirol-herrialdea": *"Herrialde gisa aintzatetsita egon ez arren, bere kirolak kontrolatzeko autonomiari dagokionez, behintzat, autogobernu-alderdi batzuk dituen eta FINAk hala aintzatetsi duen lurralde edo eskualde geografiko oro da Kirol Herrialdea"*.

- Herrialde subiranoaren placet-aren beharra: Ez.
- Estaturik gabeko kideen zerrenda: Holandarren Antillak, Aruba, Gibraltar, Guam, Hong Kong, Bermuda Uharteak, Kaiman Uharteak, Cook Uharteak, Faroe Uharteak, Ipar Mariana Uharteak, Turk eta Caico Uharteak, Birjina Uharte Britainiarrak, Birjina Uharte Amerikarrak, Macao, Palestina, Puerto Rico, Samoa Amerikarra eta Tahiti.

2. Nazioarteko Arku Tiroketa Federazioa (FITA):

- 1931. Eratu zen urtea: 1931.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: honako hauek izan daitezke FITAko kide:

¹ Zerrenda honen helburua ez da osoa izatea, adibide batzuk erakustea baizik. Baliteke gaur egun Estaturik gabeko kirol-federazioez osatutako beste nazioarteko kirol-federazio batzuk egotea. Adierazi beharra dago, zerrendatik kanpo geratu diren nazioarteko federazio batzuetan indarrean dauden arauen arabera, Estaturik gabeko kirol-federazioak kide berri gisa onartzea espresuki galarazten dela (adibidez, nazioarteko arraunketa, badminton eta softball federazioak), edo kideok de facto onartzea galarazten (adibidez, nazioarteko beisbol, saskibalo eta eski federazioak).

- ✓ Erakunde Nazionalak: euren ordezkarietari dagokion lurraldea zein den zehaztu beharko dute. Erakunde Nazional bakarra onartuko da herrialde edo lurralde bakoitzeko;
- ✓ Erakunde Kontinentalak;
- ✓ Nazioarteko Federazio Elkartuak; eta
- ✓ Kide Elkartuak: nazioarteko arku-tiroketa sustatzeko FITAK egiten duen jardunean modu esanguratsuan lagundu nahi duten norbanakoak, instituzioak edo enpresak izan daitezke Kide Elkartuak.

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Guam, Hong Kong, Bermuda Uharteak, Faroe Uharteak, Norfolk Uharteak, Ipar Mariana Uharteak, Macao, Puerto Rico, Samoa Amerikarra eta Tahiti.

3. Nazioarteko Atletismo Federazioa (IAAF):

- Eratu zen urtea: 1912.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: edozein "herrialde" edo "lurraldetan" atletismoaren ardura duen erakunde nazionala izatea.

Horren haritik, IAAFren estatutuetan "lurralde" kontzeptua definituta ageri da, espresuki. Hartara, halakotzat joko da "herrialdea izan ez arren, behintzat, bere kirolak kontrolatzeko autonomia izaterainoko autogobernu-alderdi batzuk dituen eta, horrenbestez, IAAFk hala aintzatetsi duen lurraldea edo eskualde geografikoa".

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Ez.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Aingira, Holandarren Antillak, Aruba, Gibraltar, Guam, Hong Kong, Bermuda Uharteak, Kaiman

Uharteak, Cook Uharteak, Norfolk Uharteak, Ipar Mariana Uharteak, Turk eta Caico Uharteak, Birjina Uharte Amerikarrak, Birjina Uharte Britainiarrak, Macao, Montserrat, Palestina, Polinesia Frantsesa, Puerto Rico eta Samoa Amerikarra.

4. Nazioarteko Futbol Federazioa (FIFA):

- Eratu zen urtea: 1904.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: dagokion "herrialdean" futbola antolatzeko eta ikuskatzeko ardura duen elkarte izatea.

Horren haritik, FIFaren Estatutuek honela definitzen dute "herrialdea", espresuki: "*testuinguru honetan, herrialdea nazioarteko erkidegoak aintzatetsitako Estatu independentea dela ulertuko da*", eta elkarte bakarra aintzatesten du herrialdeko, espresuki ezarritako salbuespenekin:

- ✓ Britainiako lau elkarteetako bakoitza FIFaren kide gisa aintzatetsita dago.
 - ✓ Oraindik independentzia eskuratu ez duen edozein eskualdetako futbol-elkarte izan ahal izango da FIFako kide, dagokion herrialdeko elkarte nazionalak baimentzen badu.
- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
 - Estatu gabeko kideen zerrenda: Aingira, Holandarren Antillak, Aruba, Eskozia, Gales, Guam, Hong Kong, Ingalaterra, Ipar Irlanda, Bermuda Uharteak, Kaiman Uharteak, Cook Uharteak, Faroe Uharteak, Turk eta Caico Uharteak, Birjina Uharte Amerikarrak, Birjina Uharte Britainiarrak, Montserrat, Palestina, Puerto Rico, Samoa Amerikarra eta Tahiti.

5. Nazioarteko Hockey Federazioa (FIH):

- Eratu zen urtea: 1924.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: "herrialde" gisa aintzatetsita egotea.

Horren haritik, FIHren estatutuek honela definitzen dute "herrialdea", *espresuki: "FIHK bere irizpideen arabera aintzatetsitako herrialde, Estatu edo lurralde oso bat, nahiz lurralde zati bat, Elkarte Nazional baten kontrol juridikzionalaren eremua dena, herrialde horretako Batzorde Olinpiko Nazionalarenari dagokiona (BON), eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoak emandako aintzatespenarekin bat datorrena (NBO), betiere Batzorde Olinpiko Nazional hori existitzen bada".*

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Ez.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Eskozia, Gales, Gibraltar, Ingalaterra, Bermuda Uharteak, Puerto Rico eta Samoa Amerikarra.

6. Mahai Teniseko Nazioarteko Federazioa (ITTF):

- Eratu zen urtea: 1926.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: "lurralde" batean mahai-tenisaren erakunde ordezkari bat izatea.

Horren haritik, ITTFren estatutuek zera ezartzen dute 1.17. artikuluan, *espresuki:*

"Lurralde batean mahai-tenisaren erakunde ordezkari oro hauta daiteke ITTFren bazkide gisa, baldin ITTFren printzipioekin bat badator. Baina ordezkari-aintzatespena ezin izango du jaso kirola kontrolatu eta zuzentzen duen lurralderako baino.

Normalean unitatetzat jotzen den eremu baten eskualde batean bakarrik elkarte batek edo gehiagok mahai-tenisa ordezkatzan duten kasuetan, unitate bereko beste edozein eskualdetan ere kirol hori ordezkatzan duen elkarte batek federazioan kide gisa

sartzeko eskaria egin dezake. Betiere, egoera horretan, honako baldintza hauek bete behar dira: separazioaren arrazoia ezin dira izan ez kirola, ez jokalariak; aldarrikatzen duen jurisdikzioa argi mugatuta egon behar da, bai tituluz, bai eraketaz, kirola kontrolatzen duen lurraldera; eta, bestela, federazioko kide izateko eskubidea izatea.

Eskaria aztertzeko garaian, aintzat hartuko dira federazioko kide diren unitate bereko elkarte guztien ikuspuntuak. Ez dira inola ere aintzatetsiko lurralde berean, jardunean dabiltzan autoritadedun elkarte bi”.

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
- Estatuak gabeko kideen zerrenda: Holandarren Antillak, Aruba, Eskozia, Gales, Gibraltar, Groenlandia, Guam, Guernesey, Hong Kong, Ingalaterra, Bermuda Uharteak, Cook Uharteak, Man Uharteak, Faroe Uharteak, Niue Uharteak, Ipar Mariana Uharteak, Jersey, Kosovo, Macao, Kaledonia Berria, Palestina, Puerto Rico, Samoa Amerikarra eta Tahiti.

7. Nazioarteko Taekwondo Federazioa (WTF):

- Eratu zen urtea: 1973.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: “nazio” edo “lurralde” bateko taekwondo elkarte nazionala izatea.

Horren haritik, zera ezartzen dute espresuki, WTFren estatutuek: “WTFk elkarte nazional bat onar dezake eskubide osoko kide gisa, nazio edo autogobernuden lurralde bakoitzeko. Autogobernu-ahalmenik izan ez arren, Nazioarteko Batzorde Olimpikoak (NBO) aintzatetsitako Batzorde Olimpiko Nazional (BON) bat duen lurralde bat ere onartua izan daitene eskubide osoko kide gisa. Autogobernua duten baina BON independenterik ez duten lurraldeak bazkide elkartu gisa onartuak izan daitezke, kasuaren arabera, kide den elkarte nazionalak gomendatuta. Aintzatespen hori bazkide diren eraginpeko beste elkarte nazionalen iritziaren mende utz daiteke”.

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Holandarren Antillak, Aruba, Guam, Hong Kong, Bermuda Uharteak, Kaiman Uharteak, Birjina Uharte Amerikarrak, Birjina Uharte Britainiarrak, Macao, Palestina eta Tahiti.

8. Nazioarteko Curling Federazioa (WCF):

- Eratu zen urtea: 1966.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: WCFren estatutuen arabera, edozein curling-elkarte izan daiteke bazkide, baldin dagokion Batzorde Olinpiko Nazionalak aintzatetsita badago.
- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Eskozia, Gales Ingalaterra, Birjina Uharte Amerikarrak eta Kosovo.

9. Nazioarteko Bolo Federazioa (FIQ):

- Eratu zen urtea: 1952.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: bolo-erakunde nazionala izatea.

Horren haritik, FIQren estatutuek zera ezartzen dute, espresuki: *"erakunde bakarra onartu ahal izango da herrialdeko, FIQren kide moduan; salbuespen gisa, beste erakunde nazional batzuk onartu ahal izango dira bazkide moduan, Kongresuak kirolaren onura eta intereserako dela erabakitzen duen kasuetan"*.

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Ez.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Holandarren Antillak, Aruba, Eskozia, Gales, Guam, Guernesey, Hong Kong, Ingalaterra, Ipar

Irlanda, Bermuda Uharteak, Man Uhartea, Ipar Mariana Uharteak, Birjina Uharte Amerikarrak, Jersey, Macao eta Puerto Rico.

10. Areto Dantzetako Nazioarteko Federazioa (WDSF):

- Eratu zen urtea: 1935.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: WDSFk aintzatetsitako herrialde bateko kirol areto-dantzako elkarteak izatea.

Horren haritik, WDSFren estatutuek zera ezartzen dute, espresuki: *"eskubide osoko bazkideak WDSFk aintzatetsitako herrialdeetako kirol-dantzako elkarteak izango dira. Herrialde bakoitzeko, elkarte horietako bat bakarrik izan ahal izango da federazioko bazkide"*.

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Eskozia, Gales, Hong Kong, Ingalaterra, Ipar Irlanda eta Macao.

11. Nazioarteko Korfball Federazioa (IKF):

- Eratu zen urtea: 1933.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: kasuan kasuko herrialdean korfball-az arduratzen den erakunde nazionala izatea.

Horren haritik, IKFren estatutuek zera ezartzen dute, espresuki:

"Estatutu, xedapen eta arau hauetan, ondoko hitzek eta espresioek jarraian adierazten den esanahia dute, kontrakoa zehazten duten testuinguruetan izan ezik:

Herrialdea: IKFk aintzatetsitako herrialde, Estatu edo lurralde oso bat, nahiz lurralde zati bat, erakunde nazional baten kontrol judizialaren eremu gisa jarduteko ahalmen osoa duena.

Erakunde nazionala: herrialde batean, korfbal jokoaren administrazioarekin eta antolaketarekin lotutako gai guztien ardura duen aginte gorentzat aintzatetsitako elkarte edo federazioa”.

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Ez.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Aruba, Bonaire, Katalunia², Curaçao, Eskozia, Gales, Ingalaterra, Hong Kong, Macao eta Rio de Janeiro.

12. Salbamendu eta Sorospeneko Nazioarteko Federazioa (ILSF):

- Eratu zen urtea: 1910.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: ILSFk hiru bazkide-kategoria ditu:
 - ✓ Eskubide osoko kidea: sorrerako kideez aparte, nazio bakoitzeko elkarte nazionalak izan daitezke. Elkarte bakarra onartuko da nazioko.
 - ✓ Kide elkartua: herrialde jakin batean eskubide osoko kide bat egotea gorabehera, herrialde horretako elkarte nazionalak izan daitezke kide elkartu, herrialde bakoitzeko bi, gehienez ere.
 - ✓ Kide korrespontsala: eskubide osoko kide bat duen herrialde bateko elkarte nazionalak izan daitezke kide korrespontsalak, betiere eskubide osoko kide horrek izendatuta badaude.
- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Hong Kong, Birjina Uharte Britainiarrak, Macao eta Palestina.

² Kontuan hartu ez dagoela Espainiako korfbal-federaziorik IKFra atxikita.

13. Nazioarteko Motoziklismo Federazioa (FIM):

- Eratu zen urtea: 1904.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: federazio nazional gisa aintzatetsita egotea.

Horren haritik, FIMen estatutuek zera ezartzen dute, espresuki: *"FIMen iritziz, dagokien herrialdeetan motoziklismo-jardueren erakusgarriak diren eta jardueren kontrol eraginkorra gauzatzen duten federazio nazionalak onartu ahal izango dira FIMeko kide gisa. Munduko nazio guztiak egon ahal izango dira FIMen ordezkatuta, baina federazio afiliatu bakarra izango da horietako bakoitzaren ordezkaria".*

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Ez.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Guam, Hong Kong, Macao eta Palestina.

14. Nazioarteko Mendizaletasun eta Eskalada Federazioa (UIAA):

- Eratu zen urtea: 1932.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: UIAaren estatutuek zera ezartzen dute espresuki:

"UIAAk honako bazkide hauek ditu:

- a) Botu-eskubidea duten kideak: garrantzi nazionala duen eta kide esanguratsua den edozein mendizaletasun- edo eskalada-elkarte bilaka daiteke botu-eskubidea duen UIAako bazkide. Herrialde bakoitzeko, erakunde bakar bat izan ahalko da botu-eskubidedun bazkide, finantza gaiei buruzko botu-eskubidea salbuetsita (11.b. artikulua arabera).*

b) *Botu-eskubiderik gabeko kideak: herrialde bateko beste mendizaletasun- edo eskalada-elkarte batzuk botu-eskubiderik gabeko kide bilaka daitezke, betiere nazio- edo eskualde-mailan garrantzia badute. Elkarte horiek onartzeari buruz erabakiko da, herrialde bereko botu-eskubidedun elkarteekin kontsultatu eta gero, eta dago-kion elkartearen komentarioak egokiro ezagutu ondoren. "Hautagai" den erakundea UIAAn botu-eskubidea duen bazkide aktibo bateko kide edo atal bat baldin bada, beharrezkoa da kide aktiboaren oniritzia".*

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Bai.
- Estatu-rik gabeko kideen zerrenda: Katalunia³, Euskadi⁴, Hong Kong, Kosovo eta Palestina.

15. Nazioarteko Squash Federazioa (WSF):

- Eratu zen urtea: 1967.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: WSFren estatu-tuek hiru kide-mota onartzen dituzte, espresuki:
 - ✓ Eskubide osoko kidea: Nazioarteko Batzorde Olinpikoak aintzatetsitako herrialde bateko edozein squash federazio nazional izan daiteke.
 - ✓ Kide elkartua: WSFren Kudeaketa Batzordeak bere irizpi-deen arabera alde zuzenetik gomendatutako squash elkarteak.

³ Kataluniako bi elkarte daude UIAAn sartuta: Centre Excursionista de Catalunya (CEC) eta Federació d'Excursionistes de Catalunya (FEEC). Botu-eskubiderik gabeko bazkideak dira. Mendi Kiroletako eta Eskaladako Espainiako Federazioa ere UIAAn sartuta dago, botu-eskubidea duen bazkide gisa.

⁴ Euskal Mendizale federazioa UIAAn sartuta dago, botu-eskubiderik gabeko bazkide gisa. Mendi Kiroletako eta Eskaladako Espainiako Federazioa ere UIAAn sartuta dago, baina botu-eskubidea du.

- ✓ Kide afiliatua: WSFren iritziz, mundu-mailan squash-aren alde diharduen edozein erakunde edo organismo izan daiteke.

- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Ez.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Aruba, Eskozia, Gales, Gibraltar, Hong Kong, Ingalaterra, Bermuda Uharteak, Kaiman Uharteak, Cook Uharteak, Man Uharteak, Niue Uharteak, Norfolk Uharteak, Birjina Uharte Britainiarrak, Macao, Kaledonia Berria, Palestina eta Tahiti.

16. Nazioarteko Surf Federazioa (ISA):

- Eratu zen urtea: 1976.
- Federazioan onartua izateko lurralde-betekizunak: ISAren estatutuek honako hau ezartzen dute, espresuki: "*kideak ISAK aintzatetsitako herrialde, nazio edo lurralde bateko surfing eta bodyboarding-aren Organismo Nazional Zuzendariak (aurrerantzean, ONZ) izango dira. ONZ bakarrik ordezkatu du herrialde, nazio edo lurralde bakoitza. Era berean, ISAK aintzatetsitako nazioarteko edozein surfing edo wave riding erakunde ere kide izan ahal izango da*".
- Herrialde subiranoaren *placet*-aren beharra: Ez.
- Estatu gabeko kideen zerrenda: Aruba, Dubai, Gales, Guam, Hawaii, Hong Kong, Puerto Rico eta Tahiti.

3.13 Aipatu ditugun adibideetan, deigarria da Euskal Mendizale Federazioa UIAAn afiliatuta egotea, Mendi Kirolen eta Eskaladaren Espainiako Federazioarekin batera. Baina, horiez aparte, euskal kirol federatuari dagokionez, badaude beste bi adibide, azpimarratzeko modukoak: Euskal Herriko Surf Federazioa Europako Surf Federazioan (ESFn) sartuta egotea eta Euskadiko Herri Kirolen Federazioa Nazioarteko Sokatira Federazioan (TWIF).

- 3.14 Euskal Herriko Surf Federazioaren kasuan, adierazi beharra dago 1989ko azaroaren 10ean eratu zela, eta orduan ez zegoela Espainiako surf-federaziorik. ESFk, bere estatutuen arabera, honako elkarte hauek onartu ditzake: *"surf-elkarte nazional aintzatetsiak edo ESFren Batzorde Exekutiboak onartutako surf-elkarteak, euren izena ESFren kideen erregistroan agertzen bada"*. Beraz, bere estatutuak aplikatu eta kide gisa onartu zuen EHSF 1990eko uztailaren 29an.
- 3.15 Euskal Herriko Surf Federazioa 2000ko hamarkadaren hasierara arte egon zen ESFren barruan, harik eta 1999ko azaroaren 30ean Espainiako Surf Federazioa eratu zen arte eta, ondotik, ESFren barruan sartu.
- 3.16 Hartara, Espainiako Surf Federazioa ESFn sartzeak Euskal Herriko Surf Federazioa irtetea ekarri zuen, ESFren estatutuak aplikatuta. Izan ere, estatutuek, bazkide izateko, zera exijitzen dute, espresuki: *"probatzea dagokion herrialdeko gobernuak federazioa edo elkarte aintzatetsi egiten duela, bere herrialdeko surfaren ordezkari den federazio edo elkarte bakar gisa"*.
- 3.17 Euskadiko Herri Kirolen Federazioari dagokionez, adierazi behar da ez dagoela Espainiako federaziorik modalitate horretan. Horiek horrela, euskal klubek TWIFren nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzeak argiro adierazten du euskal federazioa TWIFko bazkide dela. Hain zuzen ere, euskal klubek nazioarteko txapelketa horietan parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa da bertako bazkide izatea.
- 3.18 Bazkide-izaera hori dela-eta, TWIFk kideei ezartzen dizkien urteroko kuotak ordaintzen ditu Euskadiko Herri Kirolen Federazioak. Era berean, nazioarteko federazio horrek antolatutako asanblada eta biltzarretara joan ohi da.
- 3.19 Hala ere, esan beharra dago, Espainiako sokatira-federaziorik egon ez arren, eta Euskadiko Herri Kirolen Federazioak beste autonomia-erkidego batzuetako kirolariak ordezkatu ezin dituen arren, orain arte TWIFren kide diren elkarten zerrendan, Estua (Espainia) aipatzen dela, ez EAE.
- 3.20 Arestian esandakoa dela-eta, selekzio nazionalen mailan, orain arte ez da onartu Euskadiko Herri Kirolen Federazioaren partaidetza EAEn ordezkari gisa.

- 3.21 Nolanahi ere, ezin da ahaztu Estaturik gabeko beste federazio batzuk daudela TWIFen bazkideen artean, adibidez, Eskozia, Gales, Ingalaterra, Ipar Irlanda eta Kanaleko Uharteak.
- 3.22 Gibraltarreko Futbol Federazioarena da, Europako Futbol Elkartean (UEFA) sartu dena, Estaturik gabeko kirol-federazio bat Estaturik gabeko kirol-erakunde batean sartu izanaren beste adibide aipagarri bat, ez euskal kirol federatuari eragiten diolako, nahiko kasu berria delako baizik.
- 3.23 Izan ere, 2013ko maiatzaren 24az geroztik, 15 urte baino gehiago iraun dituen prozesu baten ondoren, Gibraltarreko Futbol Federazioa UEFaren eskubide osoko bazkide da. Prozesu horren mugarririk esanguratsuenak laburbilduko dira, jarraian.
- 3.24 Gibraltarreko Futbol Federazioak UEFAko bazkide izateko eskaria egin zuen 1997ko urtarrilean, orduan UEFAn indarrean zeuden estatutuei jarraiki. Estatutuon arabera, *"dagokion lurraldean futbola antolatzearen eta prestatzearen ardura duten europar elkarteak UEFaren kide izan daitezke"*.
- 3.25 Gibraltarreko Futbol Federazioa UEFAn sartuko zela bermatzen zuten barne-txosten juridikoak izan arren, UEFAk federazio hori kide gisa onartzeko ala baztertze erabakia *sine die* atzeratu zuen. 2001eko urriaren 11n, bere estatutuak aldatu zituen, eta, aurrerantzean, *"Nazio Batuen Erakundeak Estatu independente gisa aintzatetsitako herrialdeetako federazioak"* bakarrik onartuko zituen bazkide moduan.
- 3.26 Gibraltarreko Futbol Federazioak, UEFAk kide izateko eskaerari erantzuteko garaian izandako gelditasuna ikusita, arbitrajea eskatu zion Kirol Arbitraje Epaitegiari (TAS). Epaitegiak lehenbiziko laudo bat eman zuen 2003ko urriaren 22an, UEFA erabakitzaera behartzen zuena *"2004ko martxoaren 31n, beranduena, GFAk bazkide izatera hartzeko eskariari dagokionez, eskaria egin zenean aplikatu zitezkeen UEFaren arauak jarraiki"*.
- 3.27 2004ko martxoaren 22ko bilera batean, Gibraltarreko Futbol Federazioa bazkide izateko eskaria ezestea erabaki zuen UEFAk, orduan indarrean zegoen araudia aplikatuta, kide berrien onarpena nazioarteko erkidegoak aintzatetsitako herrialde edo Estatuetakoko federazioetara mugatzen zuena.

- 3.28 Gibraltarreko Futbol Federazioak ahaleginak egin zituen UEFAREN erabakia epaitegi batean berrikusia izan zedin, baina alferrikakoak izan ziren. 2005eko maiatzaren 12an, beste arbitraje-salaketa bat aurkeztu zuen TASen aurrean, funtsean, UEFAREN erabakia baliogabetua izan zedin, TASen 2013ko urriaren 22ko laudoa ez betetzeagatik.
- 3.29 2006ko uztailaren 6an, TASek laudo berria eman zuen. Bere bitartez, Gibraltarreko Futbol Federazioa behin-behineko kide gisa onartzea agindu zion UEFARI, bai eta Gibraltarreko Futbol Federazioa eskubide osoko kide bilakatzearen gaia mahairatzea ere, eskaria egin zen unean indarrean zegoen araudiari jarraiki. Azken gai horren haritik, zera adierazi zuen: *"UEFAk ez du ahalmenik Gibraltarreko Futbol Federazioaren kide izateko eskariari dagokionez, eta izaera hori onartua izan beharko da, aplikatu daitezkeen baldintza guztiak betetzen direnean"*.
- 3.30 Arestian esandakoa bete eta Gibraltarreko Futbol Federazioa behin-behineko kide gisa onartu zuen UEFAk 2006ko abenduaren 8an. Alabaina, UEFAREN 2007ko urtarrilaren 27ko Biltzarrean erabaki hura ez zen onartua izan, aurkako 48 bozka eta aldeko 3 egon ziren eta.
- 3.31 Erabaki berria ikusita, beste arbitraje-salaketa bat aurkeztu zuen Gibraltarreko Futbol Federazioak TASen aurrean. Ondorioz, TASek hirugarren laudoa eman zuen 2011ko abuztuaren 18an. Bertan, Gibraltarreko Futbol Federazioa eskubide osoko kide gisa berehala onartzea agindu zion UEFARI. Onarpena 2013ko maiatzaren 24an gauzatu zen, arestian aurreratu dugun bezala, aldeko 51 bozkaz eta aurkako 2 bozkaz (Espainiako eta Bielorrusiako futbol federazioenak).
- 3.32 Aurretiazko ondorio hau atera dezakegu, ikusita, batetik, nazioarteko kirol-federazioen izaera juridiko-pribatua eta, bestetik, azaldutako adibideak, nazioarteko kirol-federazioek kide berriak onartzeko betekizunak ezartzen dituzten arauak sortzeko askatasunaren erakusgarri direnak: posible izango litzateke euskal kirol-federazio bat nazioarteko kirol-federazio bateko kide bilakatzea, baldin (i) kasuan kasuko nazioarteko kirol-federazioak kide berriak onartzeko dituen arauak jarraiki, Estaturik gabeko kirol-federazioak onartuko balitu eta (ii) kasuan kasuko euskal kirol-federazioak dagokion nazioarteko kirol-federazioak kasu bakoitzean kide berriak onartzeko ezartzen dituen betekizunak beteko balitu.

B) Euskal kirol-federazioen nazioarteko ordezkaritza, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera

- 3.33 Kasuan kasuko nazioarteko kirol-federazioaren barne-araudiak hala onartuko balu, euskal kirol-federazioak bazkide gisa onartuak izatea posible dela zehaztu eta gero, gaia indarrean dagoen Estatuko eta autonomia-erkidegoko ordenamendu juridikoaren ikuspuntutik lantzea dagokigu.
- 3.34 Horren haritik, hasteko, adierazi beharra dago Espainiako Konstituzioaren (EK) 148.1.19. artikulua eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutua ezartzen duen abenduaren 18ko 31/1979 Lege Organikoaren (EHA) 10.36. artikulua diotenez, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eskumen eskusiboa du kirolaren arloan.
- 3.35 Horrenbestez, doktrina jurisprudenzialari jarraiki, gai jakin bati buruzko eskumen eskusiboa izateak zera esan nahi du: eskumenaren titularrari dagokiola (Estatua bera izan ala autonomia-erkidegoa) gai horri dagozkion legegintza-eginkizun eta eginkizun exekutibo guztiak gauzatzea.
- 3.36 Kirolaren arloan lege bidez ezarri den eskumen eskusibo horren ondorioz, aurrerago ikusiko den bezala, Epaitegi Konstituzionalak eskumen eskusibo horren irismena nolabait kaltetu edo erlatibizatu izana gorabehera, batetik, Estatuak onartu eta xedatu egin zuen Kultura Fisikoari eta Kirolari dagozkion eskumen guztiak EAera eskualdatu zituen 3089/1980 Errege Dekretua, irailaren 16koa; eta, bestetik, kirolaren arloa bere lurraldean arautzeko arau-sorta bat promulgatuz joan da EAE, euskal kirol-federazioek euskal kirol federatua nazioartean ordezkatzeko ahalbidetu lezakeena.
- 3.37 Azken horri dagokionez, hau da, EAEk bere eskumen eskusiboa gauzatu promulgatu dituen arauen lurralde-irismenari dagokionez, lurraldez kanpoko kalifikazioa zehaztu beharra dago eskumen jakin batzuk gauzatzeko garaian. Izan ere, printzipioz, autonomia-erkidego batek eta, zehazki, EAEk, zilegitasuna eta eskumena ditu eskusiban dagokion lurralde-eremuaren barruan bere legeak egin eta egikartzeko. Baina, era berean, egia da lurralde-eremuak ez diola autonomia-erkidegoari "nazioarteko garrantzia" duten ekitaldiak gauzatzeko galarazten. Epaitegi Konstituzionalean indarrean dagoen jurisprudenziaren beraren arabera,

horiek eta berez *"nazioarteko harremanei"* dagozkien gaiak berezi behar dira, azken hauek Estatuaren eskumen eskusibokoak baitira, EKren 149.13 artikulua espresuki adierazten duen bezala.

- 3.38 Beraz, aipatutako Konstituzio-jurisprudentziarekin bat etorri (Epaitegi Konstituzionalaren 2012ko apirilaren 18ko epaia —aurrerago komentatuko duguna—, 1994ko maiatzaren 26koa, EAEn Bruselan ordezkari-tza-bulego bat irekitzeko baimena eman ziona, eta 1992ko irailaren 16koa eta 1992ko azaroaren 16koa), honako hauek dira berez *"nazioarteko harremanei"* dagozkien gaiak: *"nazioarteko ordenamenduaren bereizgarriak diren gaiak dira, hala nola itunak sinatzea ("ius contrahendi") eta Estatu nazioartean ordezkatzeko ("ius legationis"), nazioarteko betebeharrak sortzea eta Estatuaren nazioarteko erantzukizuna"*. *"Nazioarteko garrantzia"* duten ekitaldiak honako hauek direla ulertu behar da: autonomia-erkidegoei dagozkien eskumenak egokiro gauzatze aldera, *"autonomia-erkidegoek euren lurraldetik kanpo ez ezik, are Espainiako lurraldearen mugetatik kanpo egin behar dituzten"* ekitaldiak, berez nazioarteko harremanei dagozkien gaiei eragin gabe.
- 3.39 Hau da, juridikoki, onargarria da autonomia-erkidegoek, euren gain hartu dituzten eskumenak gauzatu eta egikaritzekoan, *"nazioarteko garrantzia"* izan lezaketen lege-xedapenak promulgatu ahal izatea, betiere, nazioarteko proiektio horrek ez badie berez nazioarteko harremanei dagozkien gaiei eragiten, horien eskumen eskusiboa Estatuak du eta, arestian aipatu den bezala.
- 3.40 Aurreko parentesia itxita, gaur egun EAEn kirolaren arloan dagoen araudia zehaztea dagokigu orain, Epaitegi Konstituzionalak egin litzakeen interpretazioak alde batera utzita —horiek aurrerago landuko dira—. Araudi horrek euskal kirol-federazioek euskal kirol federatua nazioartean ordezkatzeko ahalbidetuko luke.
- 3.41 Horren haritik, honako hauek dira autonomia-erkidegoko erreferentziazko arauak: 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena (EKL) eta 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena (EKFD).
- 3.42 Bi arauak elkarrekin aztertu eta gero, zera adieraz daitezke:

- (i) Euskal kirol-federazioak erakunde pribatuak dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak, kirol-mota bera sustatzen edo praktikatzen duten kirolari, teknikari, epaile, elkarte eta bestelako kolektiboak biltzen dituztenak, eta dagozkien lurralde-federazioek⁵ bertan sartu beharko dute (EKLren 15.1 eta 16.7. artikulua eta EKFDren 2. eta 10.2. artikulua).
- (ii) Euskadiko kirol-federazioek, euskal kirol federatua Estatuan ordezkatzeko dutenek, beren eginkizunez gain, administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituzte eskuordetuta. Kasu horretan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa arituko dira, besteak beste, gai honi dagokionez: "euskal kiroleko ordezkariak bideratzea Estatuko (...) lehiaketetan" (EKLren 15.3. eta 25.1.b. artikulua eta EKFDren 10.1., 13.1.a. eta 14.1.b. artikulua).
- (iii) Dagozkien kirol-selektzioek Estatuko eta nazioarteko kirol-ekintza eta -txapelketetan parte hartzea sustatu eta bideratu beharko dute euskal kirol-federazioek (EKLren 16.6. "in fine" artikulua eta 37.1. artikulua).
- (iv) Euskal kirol-federazioen egitekoa izango da dagozkien kirol-motetan haietako bakoitzaren selektzioaren ordezkari izango diren kirolariak hautatzea (EKLren 37.2. artikulua).
- (v) Euskal kirol-federazioak, euren irizpideen arabera, kasuan kasuko Estatu-mailako nahiz nazioarteko kirol-federazioetan sartu ahal izango dira ala ez (EKLren 27. artikulua eta EKFDren 44. artikulua).

Azken puntu hau oso garrantzitsua da. Batetik, euskal kirol-federazioak (i) dagozkien Estatuko kirol-federazioetan ez sartzea ahalbidetuko luke. Afiliatuek (klubak, jokalariak eta abar) Estatuko federazioak antolatutako txapelketa ofizialetan ez parte hartzea ekarriko luke horrek. Bestetik, bide batez, (ii) Estatuz gaindiko kirol-federazioetan zuzenean sartu ahal izatea ahalbidetuko luke,

⁵ Araudi horren arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzietako kirol-federazioak dira "lurralde-federazioak".

baldin federazio horiek euskal federazioak onartuko balituzte, kide berriak sartzeari buruz duten barne-araudiari jarraiki.

- 3.43 Aipatutako araudia Euskadik kirolaren arloan duen eskumen eskusiboaren itzalean onartuta dago, eta bere legalitatea bakezkoa da, Estatuak ez duelako Konstituzioaren aurkako alderdirik ikusi izan. Araudi horri esker, euskal kirol-federazioek euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkari-tza gauzatzeko ahalbidetuko litzateke, kontuan hartuta nazioarteko kirol-norgehiagokak ez direla Estatuaren artekoak, kirolariak ordezkatzeko dituzten erakunde pribatuaren artekoak —kirol-federazioen artekoak— baizik. Horrenbestez, nazioarteko txapelketak ezin dira, inola ere, Estatuaren eskumen eskusiboko *"nazioarteko harremanen"* berezko gaitzat hartu.
- 3.44 Arestian esandakoaren osagarri, adierazi beharra dago, EKLren 16.6. artikulua lehen esalditik, alegia, *"Euskal federazioei baino ez dagokie euskal kirol federatua Estatuan eta atzerrian ordezkatzeko, zeini bere kirol-motan"* esalditik uler daitekeela kirol-modalitate bakoitzeko euskal kirol-federazioei eskusibaz dagokiela euren kirol federatuaren nazioarteko ordezkari-tza -ez Espainiako kirol federatuarena-.
- 3.45 EKLren 16.6. artikulua lehen esaldiari eman dakioken interpretazioaren ondorioz, arau horren aurkako Konstituziokontrakotasun-errekurtsoa aurkeztu zuen Estatuak Epaitegi Konstituzionalaren aurrean (4033/1998 errekurtso-zenbakia), 1998ko irailaren 25ean, honako argudio hauekin oinarrituta:
- (i) Arauak Estatuaren eskumenak inbaditzen dituela, nazioarteko harremanei eta kulturari dagokienez; eta
 - (ii) batetik, EAEk kirolaren arloan duen eskumen eskusiboak ez duela zilegitzen autonomia-eskumenak nazioartean gauzatzeko, eta, bestetik, euskal kirol federatuak atzerrian duen eskusibotasuna —EKLren 16.6. artikulua lehen esaldian euskal kirol-federazioei esleitua— Konstituzioaren aurkako dela, alde batetik, ez duelako aintzat hartzen autonomia-erkidegoei inplizituki dagokien lurralde-muga, nazioartean Espainiako kirol federatua bere osotasunean ordezkatzeko eskumena —derrigorrez Estatuari dagokiona— galarazteko.

raziz eta, beste aldetik, Espainiako legegileak aurreikusitako mailaz mailako ordezkari-tza-sistema kaltetzen duelako⁶.

3.46 Errekurtsoaren xede zen araua Konstituziokontra-kotasun-errekurtsoaren ebazpenaren zain 13 urtez etenda gelditu eta gero (Epaitegi Konstituziona-laren 1999ko otsailaren 9an dekretatutako Autoaren bidez), Goi Epaitegiak epaia eman zuen 2012ko apirilaren 18an, eskumen-gatazka ebatzi eta Estatuak aurkeztutako Konstituziokontra-kotasun-errekurtsoa gaitzetsi ondoren. Epaia-aren arabera, EKLren 16.6. artikulua-ren lehen esaldia konstituzionala da, betiere lege horren Hamaikagarren oinarri juridikoa-ren arabera interpretatzen bada⁷.

3.47 Horiek horrela, ez dugu kasua zehatz-mehatz aztertu nahi, baina komenigarria da epai horren funtsezko erabakiak azpimarratzea, horiek emango baitigute euskal kirol federatua-ren nazioarteko ordezkari-tza-aren irismenaren eta bideragarritasun juridikoa-ren egungo egoera-ren berri:

- (i) Espresuki ezetsi da euskal kirol federatua-ren nazioarteko ordezkari-tzak "nazioarteko harremani" dagokienez Estatuak duen eskumen eskusiboari eragiten dionik. Goi Epaitegiak berez "*nazioarteko harremani*" dagozkien gaien irismenari buruz sortu duen jurisprudentzia berretsita, zera adierazten du espresuki: "*agerikoa da kirolaren esparruko nazioarteko ordezkari-tza delakoa nekez sar daitekeela EKren 149.1.3. artikuluan arautzen diren "nazioarteko harremanen" arloaren baitan⁸, batetik, ez garelako ari Estatu-
edo bestelako organismo publikoen arteko harremanez —kirol-egiturak izaera pribatukoak dira zeharo—, eta, bestetik, nazioar-
teko txapelketetan parte hartzeak ez dakarrelako inongo nazioarteko konpromisorik edo betebeharririk hartzea*".

⁶ Kontuan hartu behar da urriaren 15eko 10/1990 Kirol Legearen 33.2. eta 34. artikuluetan Estatu-ko lurralde-federazioen mailaz mailako sistema edo sistema piramidala arautzen dela. Sistema horren arabera, autonomia-erkidegoetako kirol-federazioak dagokien modalitateko Estatu-federazioan sartu behar dira, eta, hartara, lurralde-irizpideak zorrozki aintzakotzat hartuta, maila bakoitzak azpikoa agortzen du.

⁷ Ikus txostenaren 3.47 (vi) puntua.

⁸ Ikus txosten honetako 3.37., 3.38. eta 3.39. puntuak.

- (ii) Era berean, baztertu egiten du auzia "kulturaren" arloko eskumenekoa denik, Estatuak eta EAEk konpartitzen duten eskumena, izan ere. Horren haritik, Epaitegi Konstituzionalak kirolak duen alderdi kulturala onartzen du —kirola praktikatzek nortasunaren garapena, hezkuntza eta kulturen eta balioen trukea sustatzen duenez gero, bereziki, praktika hori nazioartean gauzatzen denean—. Alabaina, epaian xedatzen denez, kirol federatuaren nazioarteko ordezkariak *"nekez lotu dakiok kulturaren eskumen-tituluarekin, kirol-praktikaren antolaketan edo egituran baino ez datza eta (kirol-modalitate baten nazioarteko ordezkariari dagokionez), ez kirolaren beste alderdi batzuetan"*. Azkenik, honako hau ondorioztatzen du: *"azken batean, ez gaude zorrozki adierazpen kultural bati buruzko arau baten"*
- (iii) Espresuki xedatzen du auzia edo, hobeto esanda, arauaren eskumen-esparrua "kirolaren" arloan bakarrik kokatu behar dela, EKLren 16.6. artikulua lehenean esaldia *"euskar kirolaren, eta, zehazki, kirol-federazioen elkarte-egitura bere antolamendu-atalen arabera arautzearen baitan ulertu behar dela —Euskadiko Kirolaren Legearen Hitzaurreak adierazten duen bezala—, horiek berregituratzeko eta federazioen atomizazio kezkarria konpontzeko xedez"*. Horrela, "Konstituzioan kirola sustatzeko eman zen agindua (EKren 43.3. artikulua)" bete egiten du, *"aintzat hartuta, kirol-praktika askea eta borondatezkoa den arren (EKLren 2.2. artikulua), interes publikoko gizarte-jarduera dela, pertsonen prestakuntzarako eta garapen integralerako lagungarria dela, norbanakoaren eta gizartearen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen dituela (EKLren 2.1. artikulua) eta eragin handia duela osasunaren garapenean, bai eta beste sektore batzuetan ere, hala nola hezkuntzan edo kulturatan"*.

Arestian esandakoarekin bat etorriz, Epaitegi Konstituzionalak zera ondorioztatzen du espresuki: *"gizartean (bai eta ekonomian ere) duen garrantzi horrek justifikatu egiten du agente publikoek derri-gorrez sustapen-neurri tradizionalak (diru-laguntzetara, pizgarri fiskalak edo ohorezko sariak) mugatuko ez diren eskuhartzeak gauzatzea, alegia: kirol-praktikaren ordenamendua eta antolamendu-izaerako neurri positiboak, kirol-praktika jakina sendotzean eta sustatzean eragin zuzena izango dutenak eta garrantzi berezia hartuko dutenak, kirol profesionalari dagokionez"*.

- (iv) Gaia "*kirolaren*" arloan kokatuta egonik, Epaitegi Konstituzionalak espresuki aitortzen du "*Konstituzioak, gai horri dagokionez, ez duela eskumen-erreseerbarik Estatuaren alde, EAEk eskumen horiek bere gain hartu dituelako eskusiboki, bere Autonomia Estatuaren bitartez*".
- (v) "*Kirolaren*" arloko eskumen-titulurik izan ez arren, Epaitegi Konstituzionalak, Espainiako kirolaren nazioarteko ordezkariak interes orokorrari eta Estatuaren ordezkariak bateratuaren beharrari eragiten diela argudiatuta, eskumen-lehentasuna Estuari ematen dio, EAEko araudiaren gainetik, honako gai hauen modukoak arautzeko: Espainiako selekzioen partaidetza nazioarteko txapelketetan; Espainiako federazioak kasuan kasuko nazioarteko federazioetan izena emateko baimena; edo nazioarteko txapelketa ofizialak Espainiako lurraldean egiteko baimena.
- (vi) Gainera, Epaitegi Konstituzionalak espresuki aitortzen du EAEk, kirolaren arloan duen eskumen eskusiboa gauzatzuz, euskal kirol federazioak "euskal kirol federatuaren ordezkari bakartzat" konfiguratu ditzakeela, honako kasu hauetan:
- a. Euskal kirol federatuak nazioarteko txapelketa ez ofizialetan parte hartzea;
 - b. Euskal kirol federatuak Espainiako federaziorik sortuta ez duten kirol-modalitateetako nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzea; eta
 - c. Euskal kirol federatuak kirol-ekitaldietan parte hartzea, baldin beste Estatu edo herrialde batzuetako selekzio nazionalen partaidetzarik ez badago edota euskal kirol federatuak Kirol Kontseilu Nagusiaren derrigorrezko baimena badu.

3.48 Zehaztu berri dugun Epaitegi Konstituzionalaren Epaia doktrina Goi Epaitegiaren 2012ko maiatzaren 23ko epaian orpo orpo errepikatzen da, Kataluniako kirol-federazioek Kataluniako kirol federatua nazioartean

ordezkatzeari buruzko eskumenaren auzia lantzen denean, beraz, doktrina hori jurisprudentzia-mailara igo daiteke. Eduki horren arabera, EAEk bere kirol federatua nazioartean ordezkatzearen auzia eskusibaz arautzeko duen bideragarritasun juridikoa 3.47.vi. puntuan zehaztutako kasuetara mugatuta geratuko litzateke eta, hartara, gainerako kasuetan, Estatuak gaiari buruz landutako araudiak izango luke lehentasuna.

3.49 Horiek horrela, eta Epaitegi Konstituzionalaren 2012ko maiatzaren 23ko epaiarekin lotuta dagoen auzia izanda, zehaztu beharra dago jarduteko zer aukera utziko lioketen EAERI euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkaritza arautzeko eskumen eskusiboari dagokionez Epaitegi Konstituzionalak aintzatesten dituen kasuek.

3.50 EAEk euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkaritza arautzeko eskumen eskusiboa gauzatzeko Epaitegi Konstituzionalak aintzatesten dituen kasuak banan-banan eta bereizita aztertu aurretik, adierazi behar da, kasu horietan, erabat aplikatu daitezkeela txosten honetako 3.42. puntuan azpimarratu diren EKLren eta EKFDERen xedapenak.

3.51 Aurrekoa adierazi eta gero, banan-banan aztertuko ditugu euskal kirol federatuaren ordezkaritza eskusiboa zilegituta duten kasuak, Epaitegi Konstituzionalak abalaturatuta:

- a. Euskal kirol federatuaren parte-hartzea nazioarteko txapelketa ez ofizialetan: kasu honetan, ez dago inolako zalantzarik. EAEk eskumen eskusiboa du euskal kirol federatua nazioarteko norgehiagoka ez ofizialetan ordezkatzeari dagokion guztia arautzeko.
- b. Euskal kirol federatuak nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzea, ez dagoenean Espainiako federaziorik sortuta kirol-modalitate horietarako: kasu honetan, argi dago modalitate jakin batean Espainiako federaziorik ez badago, baina bai euskal kirol-federazioa, EAEk eskumen eskusiboa duela bere kirol federatuaren nazioarteko ordezkaritza arautzeko.

Arestian esandakoaren erakusgarri argia da Euskal Herriko Surf Federazioaren kasua, denbora luzez Europako Surf Federazioko (ESF) kide izandakoa, txosten honetako 3.13. eta 3.16. puntuetan azaldu den bezala.

Kasu honen muga dagokion kirol-modalitatearen Espainiako federazioa eratzean dago, Euskal Herriko Surf Federazioaren kasuan islatu den bezala. Une horretatik aurrera, EAEk ez luke eskumen eksklusiborik izango gai hori arautzeko, Estatuak duenarekin banatuta egongo litzateke eta. Gaur egun, arestian komentatutako Epaitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia aplikatuta, lehenetasuna izango luke Estatuaren eskumenaren aplikazioak.

Arestian esandakoaren arabera, gai honi buruzko Estatu legeria aplikatuta⁹, kasuan kasuko euskal federazioa Estatu kirol federazioan sartu beharko litzateke, eta, ondorioz, dagokion Estatuz gaindiko federazioko kide izateari utzi.

Azaldutakoaz gain, aztertu beharko litzateke kasu horrek aukerarik uzten ote dion EAERI bere kirol federatuaren nazioarteko ordezkari-tza arautzeko eskumen eksklusiboa gauzatzeko, baldin Estatu-mailan modalitatearen kirol-federazioa badago, baina estatutuetan ez badago dagokion diziplina aurreikusita.

Horren haritik, adierazi behar da kirolaren arloko legeriak, bai Estatuak, bai erkidegokoak¹⁰, modalitateen eta diziplinen arabera¹¹ antolatzen dutela kirol federatua (diziplinek kirol-espezialitate izena ere hartzen dute).

Alde horretatik, EAEko kirolaren arloko araudian espresuki ezar-tzen da kirol-modalitateen eta -diziplinen katalogoa, EKFDren eranskin gisa. Estatu legeriak, ordea, ez du kirol-modalitateen eta -diziplinen katalogo ofizialik, eta, hartara, dagokion kirol-federazioak bereizketa hori estatutuetan egitearen mendean geratzen da.

⁹ Ikus txosten honetako 3.52. eta 3.55. puntuak.

¹⁰ Estatu-mailan, ikus abenduaren 20ko Espainiako kirol-federazioei eta kirol-elkarteen erregistroari buruzko 1835/1991 Errege Dekretuaren 3.1. artikulua; autonomia-mailan, ikus EKLren 18. artikulua eta EKFDren 46. artikulutik 50.era.

¹¹ Adibide gisa, futbola modalitatea izango litzateke eta, areto-futbola, futbolaren diziplina.



Hartara, gerta liteke ofizialki aintzatetsita dagoen kirol-diziplina bat egotea bai EAE mailan, bai dagokion modalitateko euskal kirol-federazioaren mailan, baina diziplina hori aintzatetsita ez egotea modalitate horretako Espainiako federazioaren estatutuetan.

Kontuan hartu beharra dago kasu zehatz hori, praktikan, oso jende gutxiko kirol-diziplinetan bakarrik izango litzatekeela posible. Badi-rudi juridikoki bideragarria izango litzatekeela defendatzea kasuan kasuko kirol-diziplinaren nazioarteko ordezkaritza diziplina horri dagokion modalitateko euskal federazioari ere esleituta geratzea, Epaitegi Konstituzionalaren 2012ko apirilaren 18ko epaian ezarritako jurisprudenzia analogikoki aplikatuta. Epai horrek aplika litezkeen honako kontsiderazio hauek ezartzen ditu: "euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkartzaren eskusibotasuna euskal federazioei esleitzen dien lege-aurreikuspena honako kasu haue-tara mugatzen da: euskal federazioek Espainiako inongo federaziotan parekorik ez dutenean eta nazioarteko norgehiagoka batean zuzenean parte hartzen dutenean, ez dagoelako tartean in-teres nazionalik eta ez zaielako eragingo ez Espainiako kirol federatuari bere osotasunean, ez Espainiako Estatuaren kanpo-irudiari, aplika daitekeen nazioarteko araudiari (dagokion nazioar-teko erakundearen estatutuen arabera) eta gai horri buruzko Estatuak aurreikuspenei jarraiki. Estatuak kirolaren nazioarteko dimentsioari buruz duen eskumenarekin elkartzen ez den espazio horretan hartzen du, hain zuzen ere, 16.6. artikularen lehen esal-diko aurreikuspenak zentzua bere osotasunean, Estatuak eskumenari kalterik egin gabe eta kirolaren egitura piramidala hautsi gabe".

Horrela, kirol-diziplina bat ez badago Estatu-mailan dagokion kirol-federazioaren estatutuetan sartuta, baina bai EAEko mailan, badi-rudi, kasu horretan, kirolaren nazioarteko ordezkartzari dagokionez, ez legokeela Estatuak duen eskumenarekin elkartzeko modurik, beraz, kirol-diziplina horren nazioarteko ordezkaritza es-klusiboa dagokion euskal kirol-federazioari esleitu ahal izan beharko litzaioke.

- c. Euskal kirol federatuaren parte-hartzea kirol-ekitaldietan, baldin beste Estatu edo herrialdeetako selekzio nazionalak parte hartuko

ez badute, edota euskal kirol federatuak Kirol Kontseilu Gorenaren derrigorrezko baimena badu. Kasu honetan, honako zalantza hau azalera daiteke: suposizio bakarra den ala, egiazki, erabilitako "edota" formula dela-eta, bi suposizioen aurrean gauden.

Suposizioa gramatikaren alderditik bakarrik aztertuta, benetan, bi suposizio direla ondorioztatu beharko litzateke: (i) *"Euskal kirol federatuaren parte-hartzea kirol-ekitaldietan, baldin beste Estatu edo herrialdeetako selekzio nazionalak parte hartuko ez badute, euskal kirol federatuak Kirol Kontseilu Gorenaren derrigorrezko baimena duela"*; eta (ii) *"Euskal kirol federatuaren parte-hartzea kirol-ekitaldietan, euskal kirol federatuak Kirol Kontseilu Gorenaren derrigorrezko baimena duela"*.

Alabaina, suposizio hori aztertu dugun Epaitegi Konstituzionalaren jurisprudentziaren arabera interpreta daiteke, kontuan hartuta EAEk eskumen eskusiboa duela txapelketa ez ofizialetan eta, Espainiako federaziorik ez duten modalitateen kasuan, txapelketa ofizialetan euskal kirol federatua ordezkatzeko. Horren haritik, Zuzenbideko *"qui potest plus, potest minus"* printzipio orokorra aplikatuta, ezin izango litzateke ulertu Kirol Kontseilu Gorenari baimena eskatu behar izatea (a) kirol-ekitaldi ez ofizialetan parte hartzeko eta (b) Estatu-mailan kirol-federaziorik ez duten kirol-modalitateetako kirol-txapelketa ofizialetan parte hartzeko.

3.52 Azkenik, txostena amaitzeko, laburtu beharra dago zein den aplikatu daitekeen araudia, Epaitegi Konstituzionalak kirolaren arloko Estatuaren araudiari autonomia-erkidegoko legeriaren aurrean lehentasuna ematen dion kasuetan.

3.53 Horren haritik, hauek dira erreferentziazko estatu-mailako arauak: 10/1990 Legea, urriaren 15ekoa, Kirolarena (KL); 1835/1991 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Espainiako kirol-federazioei eta kirol-elkarteen erregistroari buruzkoa (EKFKEE) eta 2075/1982 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, nazioarteko jarduerari eta ordezkari buruzkoa (EDNJO).

3.54 Arau horiek elkarrekin aztertuta, honako hau adieraz daiteke:

- (i) Estatuaren interesekotzat jotzen da goi-mailako kirola, kirol-garapenaren funtsezko faktorea delako eta nazioarteko kirol-txapelketa ofizialetan Espainia ordezkatzeko eginkizuna duelako (KLren 6. artikulua).
- (ii) Kirol Kontseilu Gorena (CSD) administrazio-izaerako organismo autonomoa da, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari atxikia. Estatuaren Administrazioaren kirolaren esparruko jarduketa gauzatzen du, zuzenean, eta izaera orokorrez. Eskumena du honako baimenak emateko edo ezesteko, Kanpo Gaietarako Ministerioarekin bat etorri eta gero: (a) Espainiako lurraldean nazioarteko kirol-txapelketa ofizialak egiteko, (b) Espainiako selekzioek nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eta (c) Espainiako kirol-federazioak dagozkien nazioarteko kirol-federazioetan sartzeko (KLren 7.1., 8.i. eta 8.p. artikulua eta EDNJOren 4. artikulua).
- (iii) Espainiako kirol-federazioak berezko nortasun juridikoa duten entitate pribatuak dira. Euren jardun-esparrua Estatuko lurralde osora zabaltzen da eta, besteak beste, autonomia-esparruko kirol-federazioek osatuta daude. Autonomia-mailako federazioak dagozkien Espainiako kirol-federazioetan sartu beharko dira, haietako kideek Estatuko edo nazioarteko kirol-jarduera edo -txapelketa ofizialetan parte hartu ahal izan dezaten (KLren 30.1. eta 32.1. artikulua eta EKFKEEren 1.2. eta 6.1. artikulua).
- (iv) Espainiako kirol-federazioek, esleituta dituzten eginkizunez gain, administrazio-izaerako eginkizun publikoak gauzatzen dituzte eskuordetzaz, Espainia ordezkatzeko dute Estatuaren barruan nahiz kanpoan antolatzen diren nazioarteko kirol-jarduera eta -txapelketetan eta, CSDren koordinazioaren eta tutoretzaren pean, Estatuko lurraldean egiten diren nazioarteko txapelketak antolatzen edota babesten dituzte (KLren 30.2., 33.1.e. eta 33.2. artikulua eta EKFKEEren 5. artikulua).
- (v) Espainiako kirol-federazioek CSDren baimena behar dute dagozkien nazioarteko kirol-federazioetan izena emateko (KLren 34.3. artikulua).

3.55 Araudi horrek Espainiako kirol federatuaren mailaz mailako sistema edo sistema piramidala finkatu egiten du eta, arestian aztertu den eta indarrean dagoen Epaitegi Konstituzionalaren jurisprudentziari jarraiki, euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkariak mugatzen.

4. Ondorioak

4.1 Nazioarteko kirol-federazioak izaera pribatuko entitateak dira. Ez daudenez Estatuak osatuta, ez ditu Nazioarteko Zuzenbide Publikoak arautzen eta, horrenbestez, euren burua antolatzeko duten askatasuna aplikatuta, kide berriak onartzeko arauak ezartzeko ahalmena dute.

4.2 Batetik, nazioarteko kirol-federazioen izaera juridiko pribatuaren eta, bestetik, txosten honetako 3. atalean azaldutako adibideen arabera — nazioarteko kirol-federazioek euren buruak arautu eta kide berriak onartzeko betekizunak ezartzeko duten askatasunaren erakusgarriak diren adibideak, hain zuzen ere—, euskal kirol-federazio bat nazioarteko kirol-federazio batean sartzea posible izango litzateke ondoko baldintzak betetzen badira: (i) kasuan kasuko nazioarteko kirol-federazioak, kide berriak onartzeko dituen arauak jarraiki, Estaturik gabeko kirol-federazioak onartzen baditu eta (ii) kasuan kasuko euskal kirol-federazioak dagokion nazioarteko kirol-federazioak kide berriak onartzeko ezarritako betekizunak betetzen baditu.

4.3 Estatuaren ordenamendu juridikoari jarraiki, euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkariak "kirolaren" eskumen-tituluaren berezko gaia da, ez "nazioarteko harremanak" edo "kultura" eskumen-tituluena.

4.4 EKren 148.1.19. artikuluan eta EHAren 10.36. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, EAEk eskumen eskusiboa du "kirolaren arloan".

4.5 Eskumen eskusibo hori aplikatzearen ondorioz, euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkariak babestuko luketen autonomia-erkidegoko arauak egongo lirateke.

4.6 Aldiz, Epaitegi Konstituzionalak eskumen-titulu bat sortu zuen *ad hoc*, alegia: Espainiako kirol federatu osoaren nazioarteko eraginaren interes orokorra eta Estatuaren modu bateratuan ordezkaria izateko beharra. Horren haritik, eskumen-lehentasuna Estatuari ematen dio, EAEko araudiaren

gainera, honako gai hauen modukoak arautzeko: Espainiako selekzioen partaidetza nazioarteko txapelketetan; Espainiako federazioak kasuan kasuko nazioarteko federazioetan izena emateko baimena; edo nazioarteko txapelketa ofizialak Espainiako lurraldean egiteko baimena.

- 4.7 Horren esan nahi du, besteak beste, euskal kirol-federazio bat nazioarteko kirol-federazioetan sartzea ez dagoela bakarrik dagokion nazioarteko kirol-federazioak kide berriak onartzeko dituen barne-arauen esku. Hori oso kasu gutxitan gertatuko litzateke, alegia, Espainiako federaziorik ez balego, baina bai euskal federazioa. Kasu gehienetan, Espainiako eta Euskadiko federazioak egongo lirateke, eta hiru borondatek bat egitea exijituko litzateke: euskal federazioarena, Espainiako federazioarena eta nazioarteko federazioarena.
- 4.8 Gainera, Epaitegi Konstituzionalak, gaur egun, honako kasu hauetara mugatzen du EAEk "kirolaren" arloan duen eskumen eskusiboa eta, horrenbestez, euskal kirol-federazioen konfigurazioa "euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkari bakar gisa":
- a. Euskal kirol federatuak nazioarteko txapelketa ez ofizialetan parte hartzea;
 - b. Euskal kirol federatuak Espainiako federaziorik sortuta ez duten kirol-modalitateetako nazioarteko txapelketa ofizialetan (gure us-tez, baita diziplinetakoetan ere) parte hartzea; eta
 - c. Euskal kirol federatuak kirol-ekitaldietan parte hartzea, baldin beste Estatu edo herrialde batzuetako selekzio nazionalen partaidetzarik ez badago edota euskal kirol federatuak Kirol Kontseilu Nagusiaren derrigorrezko baimena badu.